

GU ERE DANTZARI. Piezen letrak

Erran zaharrak:

- Harri batez bi kolpe
- A ze pareta, karakola eta bareta!

Kantu-dantzak:

- **Baratzeko pikuak** (jota dantzatzeko)

Baratzeko pikuak
hiru hosto ditu,
dantzan dabilenak
oinak arin ditu,
burua arin-arina,
burua arin-arina,
zangoak arinago,
dantzan hobeki daki
arto-jorran baino.

- **Baratzeko sagarraren** (almutearen gainean dantzatzen du)

Baratzeko sagarraren, adarraren, igarraren puntaren puntan
txori bat zegoen kantari.
Bat, txiruriruri!
Bi, txiruriruri!
Zein ote da hola kantatzen duen hori?

- **Txakulin** (erratza eta lanbasarekin edo bi makilekin dantzatzen ahal da)

Txakulin, Txakulin,
Txakulinek on egin,
Marie, Marie (e)ta Martintxo.
Txakulinek egin dio Mariari txaskoa.
Eta Maritxo? Eta Maritxo?

Baldin fraidea bazara,
egin ezazu nik bezala, goizean txolokatea,
arratsaldean koipezu,
¡*Muchas mañás tienes tú!*

- **Ttapi-ttapi-ttapi-tta** (esku dantza)

Ttapi-ttapi-ttapi-tta

Ttapi-ttapi-ttapi-ta

Ttapi-ttapi-ttapi-tta

Ttapi-ttapi-ttapi-ta

Ttapi-ttapi-ttapi-tta

Ttapi-ttapi-ttapi-ta

- **Trula Joxepe** (zurrume dantza)

Trula Joxepe ari zen

astoari ura ematen.

Zaude, zaude, zaude, Joxepe,

ni ere horraxera noa.

Gizona dut handixko,

arto jale ttikixko.

Irainak:

- Pattal
- Mingainluze